

Eneko Olasagasti

ZINEMA EKOIZLEA

Agur Martin!



porretan nago. Ez hitz hauek argitaratzen direnerako baina bai idaztean. Euskal Herritik urruti kilometrotan eta burua ere nahikoa urruti. Telebistaz idaztea pentsatu dut. Nire lanbidearekin lotutako zerbaitez idazteagatik. Beharbada betikoari bueltak ematen segitzeko. Baina ez ote gabiltza beti berdintsu? Berdintsu dabilen bezala telebista. Kanalez aldatuz gero saio berdinak aurkitzen dituzu azken udetan. Batez ere bi: bat, *Callejerosen* kopiak, hondartzetan girotuak; eta bi, espainolak munduan, andaluziarrak munduan, eta oker ez banago, uste dut ETBk ere egin duela: euskaldunak munduan. Horrek betikoa esateko baino ez du ematen: zein berritasun zale eskasa den kutxatxo!

Orduan *Martin* telesailaz idaztea pentsatu dut, euskaldunok geure buruaz idazteko dugun joera umil faltsua ahaztuz. Zergatik *Martini* buruz? Artikulu hau argitaratzen denerako bere azkena emana izango delako. Eta telesaila posible egin duen taldearen partaide izateaz harro nagoelako. Eta bere azken atalak 100. zenbakia eraman duelako pantailan sei urte pasa eta gero. Egia esan, *Goenkaleren* markekin konparatuta beti galtzaile aterako gara. Baina baita *CSI*, *Aida* edo *Perdidos*. Galtzaile esan nahi dut.

Eta imajinatu dut nola joan zaion azken emanaldietan. Ez egin dituen azken audientzia zenbakietan. Hori hemen ere jakin dezaket.



INES URRUTIA

Baizik eta zer nolako trataera izan duen bere agurrak. Imajinatzen dut *Berriaren* telebistako ataleko eskuin aldeko zutabetxoko hiru artikuluetako bat berria emanez. A, ez... barkatu, *Berriak* abuztuan oporrak ematen dizkio telebista sailari. Beraz, ezta hori ere. Zaila egingen zait *El Diarion* edota *El Correon* horrelakorik. Agian Euskadi Irratian, ordu asko bete behar dituzte udan eta badirudi sasoi honetan ez dela ezer gertatzen. Edo *Garan*? Agian, baina udak berri emaile eskas izanik, gutxi. Ziurrenik neguan berdintsu gertatuko zen. Guzti honek ez nau harritzen, ez dit minik ematen ere. Beti pentsatu izan dut lanak bukatzen ere jakin behar dela. Toreadorearen moduan, karrera on bat egitea bezain inportantea dela erretiratzen jakitea.

Eta uneon gogoan izan nahi ditut denak, eta esaten den bezala, barka bezate ahaztutakoek. Aktore ordain ezinak: Jose Ramon, Elena, Aitziber, Amaia, Itziar, Argoitia, Jon, Iban, Mireia, Isidoro eta sekundarioak... eta ataletako guztiak. Produkzio eta erreali-zaziokoak: Edurne, David, Julen, beste Edurne, Harriet, Aitor, Amagoia, Lucia... Gidoilariak: Unai, Jose, Patxo, Harkaitz, Alaia, Uxue, Asier, Telmo, Pako, Nagore, Jon... ETBko langileak, Txetxo Bengoetxea musikaria... Eta denetik egin duten nire produktorako kideak: Fernando, Carlos, Kike, Lurdes, Mireia... Eta pantailaren bestaldean egon zareten guztiak. Laster arte. ■



Zergatik *Martini* buruz?

Telesaila posible egin duen

taldearen partaide izateaz

harro nagoelako



TXANDAN

Joseba Barandiaran

Bizi hitzen bizitza



Hitzek bizitza jakin bat dute gurean. Bizitza bakoitzak hitz jakin batzuk ditu. Eta norbere bizitzan zehar, bistan da, bizi eta hiltzen dira hitzok. “Buruketak”, “andereño” eta “jolasordu” hitzak, esate baterako, bizi-bizi nerabiltzan haur eta nerabe garaian. Urtetan izan ditut alboratu eta erdi ahaztuta; hilik bezala. Eta orain, aitasunaren eskutik, berriro berpizturik darabilzkit itzulingeruka; bolada baterako behintzat, ez bainaiz irakaslea. Garai batean egunkariaren atal ezezagun bat baino ez zena kasu, “ekonomia” hitzetik hortzera darabilt

azken urteotan. Eta horrela ohartu naiz bizitzan hitzak nola jaio eta hiltzen zaizkigun, norbera hiltzen doan hein berean. Gutako bakoitzak egunean gehien erabiltzen ditugun ehun hitzen zerrenda egingo bagenu, geure bizitzan nondik norakoaren argazki polita genuke, osoa, lan arloan nahiz afektiboan. Zer esaten dugun gehiago, “telebista” edo “liburua”; “maitasuna”, “politika” edo “futbola”; “tenperatura”, “erlijioa” edo “bezeroa”. Urtaroak ere, nabarmenduko lituzke. “Hondartza”, “bainujantzi” eta “krema” hitzak, adibidez, tiraderan sartu ditut aurtengoz. ■